

2023KO ABENDUAREN 5EAN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO
OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.

ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO PLENO
EL 5 DE DICIEMBRE DE 2023

LEKUA: Beasaingo Udaletxea

LUGAR: Ayuntamiento de Beasain

ARETOA: Batzar Aretoa

LOCAL: Salón de Plenos

EGUNA: Bosta

DIA: Cinco

HILABETEA: Abendua.

MES: Diciembre.

URTEA: Bi mila eta hogeitahiru

AÑO: Dos mil veintitrés

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seietan

HORA DE COMIENZO: Dieciocho horas.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

CARACTER DE LA SESION: Ordinaria.

DEIALDIA: Lehena

CONVOCATORIA: Primera.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:
Hamazazpi (17)

NUMERO DE MIEMBROS QUE LA
COMPONEN: Diecisiete (17)

UDALBURUA / PRESIDENTE:
LEIRE ARTOLA UGALDE

BILDUAK / REUNIDOS:

EAJ-PNV

- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AINHOA ARRESE ARRATIBEL
- MARIOLA PASCUAL PAREDES

- EDORTA DIAZ DEL RIO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- MICHEL VENTUREIRA IRIZAR
- OLATZ ARRESE IMAZ

- AITOR ALDASORO ITURBE

BEASAINGO EH BILDU

- HASIER AGIRRE ELKOROBerezibar
- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL

- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ

- IKER URTEAGA REBOLLAR

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- EVA ALVAREZ ATANES
- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

ELKARREKIN PODEMOS EZKER
ANITZA / IU-ALIANZA VERDE

- WESLEY ARITZ CORSITTO AGIRRE

ETORRI GABEA / AUSENTE:

- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

IDAZKARIA: ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

Bileran ere parte hartu dute Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak eta Lurdes Auzmendi interpretariak.

1.- AURREKO AKTA. 2023ko urriaren 26ko aktaren onespena.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- KREDITU ALDAKETA. 5. KREDITU TRANSFERENTZIEKIN ESPEDIENTEA.
2023TRFR0005

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Alkatetza honek Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:

1.- Kreditu transferentzien bidez 50,000,00 euroko kreditu aldaketa onartzea.

Helburu berdinerako bi partida genituen aurrekontuetan:

1. kiroldegiko gelaren egokitzapena eta
2. kiroldegiko erabilera anitzeko gela egokitzea.

Batetik bestera transferitu eta azken partida hau, 237.000 €tan uztea da proposamena."

En la reunión también ha participado la interventora Lurdes Alegría Lasa y la intérprete Lurdes Auzmendi.

1.- ACTA ANTERIOR. Aprobación del acta del 26 de octubre de 2023.

Se da cuenta del acta y se aprueba por unanimidad, sin más consideraciones.

2.- PROPUESTAS DE LA COMISIÓN DE ORGANIZACIÓN:

a.- MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS. EXPEDIENTE DE TRANSFERENCIA DE CRÉDITOS Nº 5.

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Esta Alcaldía eleva al Pleno la siguiente Propuesta de Acuerdo:

1.- Aprobar la modificación de crédito que se financia mediante transferencia de crédito por importe de 50.000,00 euro.

Para el mismo objetivo contábamos con dos partidas presupuestarias:

- 1.- Adecuación de la sala del polideportivo y
- 2.- Adecuación de la sala polivalente del polideportivo

La propuesta es transferir de una a otra y dejar esta última partida en 237.000 €."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek adierazi dira:

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): "Batzordean esan genuena errepikatzea aldera. Ekipamendua berritzera goaz baina gimnasioan lehen ere erabilera aldetik arazotxo batzuk egon dira. Orain azpiegitura jartzen dugu baina aztertu egin behar da baliabide gehiago behar diren arazo horiek ekiditeko."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Asmoa hori da. Ekipamendu berriarekin batera egungo deskongestioa ere etorriko da, baina horrek ezinbestean arautegia eguneratzea dakar. Konpromiso hori hartu genuen eta horrekin jarraitzen dugu."

Besterik gabe bozketa egin da eta aho batez ondorengo proposamena onartu da:

" GAIA.- Kreditu Aldaketa. 5. Kreditu Transferentzien Espedientea.

Kreditu transferentzien bidez 50.000,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzeko den kreditu aldaketa onartzea, eta kapitulua honela laburtzen dena:

En el turno de intervenciones se exponen las siguientes opiniones:

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): "Repito lo que dijimos en la comisión. Vamos a renovar el equipamiento pero en el gimnasio ya ha habido algunos problemas de uso. Ahora ponemos la infraestructura, pero hay que analizar si hacen falta más recursos para evitar estos problemas. "

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Esa es la intención. El nuevo equipamiento vendrá acompañado de la actual descongestión, pero ello implica necesariamente una actualización de la normativa. Adquirimos ese compromiso y seguimos con ello. "

Sin más se somete a votación y se aprueba por unanimidad la siguiente propuesta:

ASUNTO.- Modificación de créditos. Expediente de Transferencia de créditos 5.

Aprobar la modificación de crédito que se financia mediante transferencia de crédito por importe de 50.000,00 euros, según se especifica en el anexo, y que se resume por capítulos del siguiente modo:

GASTUEN GEHIKUNTZA

INCREMENTO DE GASTO

Kap.	Izena	Euro
6	Inbertsio errealak	50.000,00
GASTUEN GEHIKUNTZA / INCREMENTO GASTO		50.000,00

GASTUEN BAJAK

BAJAS DE GASTOS

Kap.	Izena	Euro
6	Inbertsio errealak	50.000,00
FINANTZIAZIOA		50.000,00

b.- 2023KO ORDAINSARIEN IGOERA.
2023PEBO0021

Langileen ordainsariak.

Dedikazio osoa eta partziala duten zinegotzien ordainsariak. Talde politikoen asignazioak eta organo kolegiatueta bertaratzaren diren zinegotzien asistentziak.

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Bi proposamen ezberdinak dira. Aurrekariak berdinak dira baina aurreko urteetan egin dugun bezala bi bozketa egingo ditugu.

2023rako Estatuko Aurrekontu Legeak, langile publikoen soldataren igoera orokorra gehienez %2,5ekoa izatea aurreikusi zuen.

Igoera orokorrak gain, aplikatu daitezkeen beste bi igoera gehigarri ere arautu zituen.

1. Kontsumo Prezioen Indize Harmonizatuaren bilakaerari lotutakoa, beti ere %6a baino handiago bada.

2. Barne Produktu Gordin nominalaren bilakaerari buruzkoa bestea.

Baldintzak beteaz gero, parametro bakoitzagatik %0,5eko igoera gehigarria aplikatuko da..

Lehenengo parametroari dagokionez, bete da eskatutako baldintza eta Ministro Kontseiluak erabakia hartu du, eta Eudelek formulatu du bere gomendioa.

Aldi berean. Udalbatza Osoak, 2023ko uztailaren 6ko egindako aparteko bileran, Talde politikoen asignazio eta organo kolegiatutako bileretara joateagatik kalteordainei dagokion akordioak hartu zituen. Kopuru hauek 2024tik aurrera eguneratu egingo dira kontuan izanda urte bakoitzeko Estatuko Aurrekontuaren Legea ezartzen duena funtzionarioekiko.

Ondorioz, Urriaren 17an Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean, Erkidegoko langile publikoen eta gainerako karguen ordainsarien %0,5eko igoera gehigarria onartzen duen erabakia argitaratu zen.

b.- INCREMENTO RETRIBUCIONES 2023.

Retribuciones del personal.

Retribuciones de los concejales con dedicación completa y parcial. Asignaciones a grupos políticos y asistencias de los concejales a órganos colegiados.

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Son dos propuestas diferentes. Los precedentes son los mismos pero como hemos hecho en años anteriores vamos a hacer dos votaciones.

La Ley de Presupuestos del Estado para 2023 preveía que la subida general del sueldo de los empleados públicos no fuera superior al 2,5%.

Además de la subida general, reguló otros dos incrementos adicionales aplicables.

1.º El relacionado con la evolución del Índice de Precios al Consumo Armonizado, siempre que sea superior al 6%.

2.º Sobre la evolución del Producto Interior Bruto nominal.

Cumplidos los requisitos, se aplicará un incremento adicional del 0,5% por cada parámetro.

En cuanto al primer parámetro, se ha cumplido el requisito exigido y el Consejo de Ministros ha adoptado una decisión, cuya recomendación ha sido formulada por Eudel.

Al mismo tiempo. El Pleno del Ayuntamiento, en sesión extraordinaria celebrada el día 6 de julio de 2023, adoptó los acuerdos relativos a indemnizaciones por asistencia a las reuniones de los órganos colegiados y asignaciones de los Grupos Políticos. Estas cantidades se actualizarán a partir del año 2024 teniendo en cuenta la Ley de Presupuestos del Estado de cada año en relación con los funcionarios.

En consecuencia, el 17 de octubre se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco el acuerdo por el que se aprueba un incremento adicional del 0,5% en las retribuciones de los empleados públicos y demás cargos de la Comunidad.

Langile Batzordearekin azaroaren 9an izandako bileran tratatu zen langileen %0,5eko igoera gehigarria.

Aurrekariak ikusita, Antolakuntza Batzordeak 2023ko azaroaren 28an egindako bileran Udalbatzari ondorengo AKORDIO PROPOSAMENA egiten dio.

Lehenengoa.- Udal Langile publikoen ordainsariak %0,5an handitu 2023ko urtarrilaren 1eko efektuekin.

Bigarrena.- Talde politikoentzako asignazioak eta kide anitzeko organoen bileretara joateagatiko kalte-ordainek % 0,5eko gehikuntza izango dute 2023ko uztailaren 6ko osoko bilkuraren erabakiarekin bat etorritz.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek adierazi dira:

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): "Guk azkenaldikoetan egiten dugun kritika. Langileen ordainsarien igoera onartuko dugu, kontutan izanda azkeneko hamar urteetan %20ko galera izan dutela KPIrekiko, baina talde politiko eta zinegotzien asignazioetan beti aurka azaldu gara. Lehen ere oso altuak direla iruditzen zaigu eta oraingo filosofiarekin ere ez gaude ados."

Eva Alvarez Atanes (Euskal Sozialistak- Socialistas Vascos): "Nuestra opinión es de sobra conocida. Con la subida de la retribución de los trabajadores públicos estamos de acuerdo, pero con la de los políticos no. Hemos iniciado la legislatura quejándonos del gasto en sueldos políticos que aquí se ha aprobado porque creemos que son altos y desorbitados, y por lo tanto también estamos en contra de la subida."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Azkeneko hamar urteetan langileek izan duten %20ko galera KPIrekiko, enpresa batzordeak egindako bileran horrela adierazi zuen eta hori partekatu egiten dugu eta ez dugu zalantzan jartzen horrela izango dela. Guri tokatzen zaigu sindikatuek proposatutakoa aurrera eramatea. Zinegotzien asignazioekiko bi talde politiko beti daude aurka onartutakoarekin eta beti, betiko leloarekin. Talde sozialistari esan gustatuko litzaidakeela zuen alderdiko kideekin egoten zaretenean eta..., 10.000 biztanle inguruko herriko alkate eta

En la reunión mantenida con el Comité de los trabajadores el 9 de noviembre se trató el incremento adicional del 0,5% de la plantilla.

Vistos los antecedentes, la Comisión de Organización, en sesión celebrada el día 28 de noviembre de 2023, somete a la Corporación Municipal la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO.

Primero.- Incrementar las retribuciones de los Empleados Públicos Municipales en un 0,5% con efectos de 1 de enero de 2023.

Segundo.- Determinar que con efectos de 1 de enero de 2023, las asignaciones a los grupos políticos y las indemnizaciones por asistencia a reuniones de órganos colegiados, será de un incremento del 0,5% adicional de conformidad con el acuerdo plenario del 6 de julio del 2023."

En el turno de intervenciones los asistentes exponen las siguientes opiniones:

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): "La crítica que nosotros hacemos en los últimos tiempos. Aceptaremos un incremento de las retribuciones de los empleados, teniendo en cuenta que en los últimos diez años han sufrido una pérdida del 20% respecto al IPC, pero en las asignaciones de los grupos políticos y concejales siempre nos hemos opuesto. Nos parece que ya antes son muy altos y tampoco estamos de acuerdo con la filosofía de ahora. "

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "En cuanto a la pérdida del 20% que han sufrido los trabajadores en los últimos diez años respecto al IPC, así lo manifestó el Comité de Empresa en la reunión celebrada y eso lo compartimos y no dudamos de que será así. A nosotros nos toca llevar adelante lo propuesto por los sindicatos. Dos grupos políticos están siempre en contra de lo aprobado con respecto a las asignaciones de concejales y siempre, con el mismo lema. Decirle al grupo socialista que me gustaría que cuando estén con miembros de su partido y..., que sepan

alkateordeek duten ordainsariak zeintzuk diren jakitea. Behar bada Beasaingoak desorbitatuak izan daitezke eta 10.000 biztanle inguruko herriko alkate eta alkateordeek kobratzen dutena ikusita zentzua edukiko luke. Bide batez esan, uztailaren 6ko bileran Irungo alkatearen soldata aipatu zenutela. Jakin, Irungo alkateak atzetik dituela alkateordea eta zortzi pertsona liberatua eta sei konfiantzazko kargu. Beraz, konparatu beharko genuke Beasaingo udaleko kargu politikoen kostua zenbatekoa den, zuek gobernatzen duzuen hainbat herriko kargu politikoen gastuekin. Hau denak maila berean konparatu behar dira."

Esateko besterik ezean bozkatu da, Udal Langile publikoen ordainsariak %0,5an handitu 2023ko urtarrilaren 1eko eraginarekin:

Aho batez onartu da.

Jarraian bozkatu da, talde politikoentzako asignazioak eta kide anitzeko organoen bileretara joateagatiko kalte-ordainek % 0,5eko gehikuntza izango dute 2023ko uztailaren 6ko osoko bilkuraren erabakiarekin bat etorriz.

Eraitza ondorengoa izan da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV)
Aurkako botoak: 7 (Beasaingo EH Bildu, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)
Abstentzioak: 0
Etorri gabeak: 1 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, gaia gehiengo osoarekin onartu da.

c.- AURREKONTUA 2024. 2023EXAP0001

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Azken hilabeteetako lanketaren ondoren, aurrekontu proposamena ekarri dugu Udalbatza honetara. Eguneroko kudeaketan eramandako zorroztasun eta zuhurtziak, gogoia eta ilusioa

cuáles son las retribuciones que tienen los alcaldes y tenientes de alcalde de localidades de unos 10.000 habitantes. Tal vez los de Beasain puedan ser exorbitados y tendría sentido a la vista de lo que cobran los alcaldes y tenientes de alcalde de localidades de unos 10.000 habitantes. Por cierto, que en la reunión del 6 de julio hablasteis del sueldo del alcalde de Irun. Saber, que al alcalde de Irun le siguen el teniente de alcalde y ocho personas liberadas y seis cargos de confianza. Por lo tanto, deberíamos comparar el coste de los cargos políticos del ayuntamiento de Beasain con los gastos de los cargos políticos de varios pueblos que vosotros gobernáis. Hay que comparar todo esto al mismo nivel. "

Se somete a votación el incremento de las retribuciones de los Empleados Públicos Municipales en un 0,5% con efectos de 1 de enero de 2023.

Se aprueba por unanimidad.

A continuación se vota que la asignación a los grupos políticos y las indemnizaciones por asistencia a reuniones de órganos colegiados tendrán un incremento del 0,5% de acuerdo con el acuerdo del pleno de 6 de julio de 2023.

El resultado ha sido el siguiente:

Votos a favor: 9 (EAJ-PNV)
Votos en contra: 7 (Beasaingo EH Bildu, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)
Abstenciones: 0
Ausente: 1 (Beasaingo EH Bildu)

En consecuencia se aprueba con la mayoría absoluta.

c.- PRESUPUESTO 2024.

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Tras la elaboración de los últimos meses, hemos traído a esta Corporación la propuesta de presupuesto. El rigor y la prudencia en la gestión diaria nos llevan a presentar un presupuesto que nos

pizten digun aurrekontua aurkeztera garamatza. 2024 ekitaldirako Aurrekontu Proiektua 21.796.075,50 eurokoa da guztira, eta horietatik 19.150.953,30 euro gastu arruntak dira. Egoera ona da, izan ere, diru-sarrera arruntek gastu arruntak gainditzen dituzte 2.601.372,20 euroko diferentziarekin eta era horretan, soberakin hori inbertsio gastuak finantzatzeko erabil daiteke.

Esan, 2020 urtean udalak zuen zor guztia aurrez amortizatu zuela eta une honetan Beasaingo udalak ez duela zorrik eta aurrekontuen aurreikuspen horretan langileen soldata igoera %2,5ekoa izatea aurreikusi dela eta hori txertatu dela dagokion kapituluan.

Beasaindarren ongizatea eta bizi-kalitatea bermatzeko helburuarekin,

Ongizate emozionalean begia jarrita,

- Belaunaldien arteko harremanak sustatzeko, gazteak eta adinekoak harremantzako ekimenak jarriko ditugu martxan.
- Amarauna proiektuaren baitan, desgaituen arteko sozializazioa lantzeko, sentsibilizazio eta prebentzio saioak aurrera eramango ditugu.

- Gazteengan arreta jarritz, nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko egitasmoa abiatuko du Udalak, aurten burututako sorkuntza prozesuaren ondotik.

- Zaintzaren Tokiko Ekosistemak sustatzeko egitasmoa jarriko dugu abian.

Zahartze aktiboarekin lotutako proiektuek bere horretan mantenduko dira, gure adinekoen bizi-kalitatea prebentzioaren bidez hobetzeko. "Ondo ibili ondo izan" programak, "Exercita" edota "Euskadi Lagunkoiak" esaterako.

Bizitza osasungarriagoa sustatzen duten programek belaunaldi gazteenei ere erreparatuko diete, eta elikadura-ohitura osasungarrietara hurbilduko dituzte, tokiko eta sasoiko produktuen merkatua aitzakia hartuta.

despierta entusiasmo e ilusión. El Proyecto de Presupuesto para el ejercicio 2024 asciende a un total de 21.796.075,50 euros, de los cuales 19.150.953,30 euros corresponden a gastos corrientes. La situación es favorable, ya que los ingresos corrientes superan los gastos corrientes con una diferencia de 2.601.372,20 euros, lo que permite destinar este excedente a financiar gastos de inversión.

Decir que en el año 2020 el Ayuntamiento amortizó anticipadamente toda la deuda que tenía y que en este momento el Ayuntamiento de Beasain no tiene deuda y que en esta previsión presupuestaria se prevé que el incremento salarial del personal sea del 2,5%, lo que se incluye en el capítulo correspondiente.

Con el objetivo de garantizar el bienestar y la calidad de vida de los beasaindarras,

Con el ojo puesto en el bienestar emocional,

- Para fomentar las relaciones intergeneracionales pondremos en marcha iniciativas de relación entre jóvenes y mayores.
- Dentro del proyecto Amarauna, desarrollaremos sesiones de sensibilización y prevención para trabajar la socialización entre personas con discapacidad.

- Poniendo el foco en la juventud, el Ayuntamiento pondrá en marcha un proyecto para combatir la soledad no deseada, tras el proceso de creación llevado a cabo este año.

- Puesta en marcha del Proyecto de Promoción de los Ecosistemas Locales de Cuidados.

Los proyectos relacionados con el envejecimiento activo se mantendrán para mejorar la calidad de vida de nuestros mayores a través de la prevención. Programas como "Ondo ibili ondo izan", "Exercita" o "Euskadi Lagunkoia".

Los programas que promuevan una vida más saludable se centrarán también en las generaciones más jóvenes y les acercarán a hábitos alimenticios más saludables, tomando como base el mercado de productos locales y de temporada.

Honi lotuta, Gizarte Ongizate Saila indartuta eta beharrezko zerbitzu guztiak aktibatuta mantentzen da.

En este sentido, el Departamento de Bienestar Social se mantiene reforzado y activados todos los servicios necesarios.

Kultura, nortasuna eta ondarea

Cultura, identidad y patrimonio

Parrokian aurkitu diren horma-pintura errenazentistak bistaratzeko lanei babesa ematen jarraituko du Udala, aurtien ere Beasaingo Parrokiari dirulaguntza emanaz.

El Ayuntamiento seguirá apoyando las obras de dejar al descubierto las pinturas murales renacentistas que se han encontrado en la parroquia, subvencionando un año más a la Parroquia de Beasain.

Herriko elkarteak, Beasaingo herria bizirik mantentzen dute eta beraien egitasmoak aurrera eramateko behar besteko dirulaguntzak ematen jarraituko dugu.

Las asociaciones locales mantienen vivo el municipio de Beasain y seguiremos concediendo las subvenciones necesarias para llevar a cabo sus proyectos.

Euskarak, nortasun-ikur eta komunikazio-hizkuntza den aldetik, babesa behar du, euskararen ezagutza eta erabilera indartu dadin.

El euskera, como seña de identidad y lengua vehicular, necesita protección para que se refuerce su conocimiento y uso.

Aittu euskara elkartearekin sinatuko den hitzarmena indartu egingo da; , ikastetxeekin bat, hizkuntza-errefortzua zerbitzuarekin jarraituko dugu eta Udal Euskaltegiaren laguntzaz, ikastaro trinkoak eskainiko dizkiegu gure herriko ostalariei, oinarritzko elkarrizketak euskaraz izateko aukera izan dezagun.

El convenio que se firmará con la asociación Aittu Euskara Elkartea se verá reforzado; en colaboración con los centros, seguiremos con el servicio de refuerzo lingüístico y con la ayuda del Euskaltegi Municipal ofreceremos cursos intensivos a los hosteleros de nuestra localidad para que podamos mantener las conversaciones básicas en euskera.

Gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko egitasmoak izango dute protagonismoa DBH4. mailako ikasleekin partekatuko dugun egitasmoarekin.,

El proyecto para fomentar el uso del euskera entre los jóvenes tendrá su protagonismo en el proyecto que compartiremos con los alumnos de 4º de ESO.

Familietan, parkeetan, euskararen erabilera sustatzeko ekimenak aurrera eramango ditugu, jolas tradizionalen ezagutza edota euskal musikarien abestiak transmititzeko aukerak probestuaz.

Llevaremos a cabo iniciativas para fomentar el uso del euskera en las familias, en los parques, aprovechando el conocimiento de los juegos tradicionales o las posibilidades de transmitir canciones de músicos vascos.

Etxebizitza

Vivienda

Gure gazteak eta kanpotik datozenak Beasainen bere bizilekua izan dezaten bidelagun izaten jarraituko dugu.

Seguiremos siendo compañeros de viaje para que nuestros jóvenes y los que vengan de fuera tengan su residencia en Beasain.

Etxebizitza Hutsen azterketa jarriko dugu abian, Beasainen dauden etxebizitza hutsak eta hutsik dauden etxebizitza horien egoera zehatza

Pondremos en marcha el estudio de Vivienda Vacía para conocer las viviendas vacías existentes en Beasain y la situación concreta de

ezagutzeko. Etxebizitza alorrean Udalak laguntzak emango dizkie alokairuan dauden beasaindar gazteei, eta baita ere, etxebizitza hutsak merkaturatzeko, etxe jabeei. Orain arte martxan ditugun ekimenak mantenduaz.

estas viviendas vacías. En materia de vivienda el Ayuntamiento concederá ayudas a los jóvenes beasaindarras en alquiler, así como a los propietarios de viviendas vacías. Manteniendo las iniciativas que tenemos en marcha hasta ahora.

Ekonomiaren sustapena

Promoción económica

Tokiko ekonomia indartsu mantentzea funtsezkoa da.

Mantener fuerte la economía local es fundamental.

Ahalegin horretan, bertako azokaren eta merkataritzaren sustapenean eragiteko ekimen eta egitasmoak ez dute etenik izango 2024an. Larunbateko azoka berezian deskontu bonuak jaulkiko dira tokiko eta garaiko produktuen erosketa sustatzeko.

En ese empeño, las iniciativas y proyectos para incidir en la promoción de la feria y el comercio locales no cesarán en 2024. En la feria especial del sábado se emitirán bonos descuento para incentivar la compra de productos locales y de temporada.

Azokako ekoizle eta erosleei zerbitzu gehigarria eskaintzeko takilek izango dute jarraipena 2024ean. Produktu galkorrentzako baliagarri izango diren takilak jarriko ditugu plaza azpian, eta takila sarea hedatuko da Beasain herrian zehar.

Las taquillas para ofrecer un servicio adicional a los productores y compradores de la feria tendrán continuidad en 2024. Se instalarán taquillas para productos perecederos bajo la plaza y se desplegará la red de taquillas a lo largo del municipio de Beasain.

Horretaz gain, azokaren irudia hobetzeko eta produktuak balioan jartzeko ekintzak eta kanpainak bultzatuko dira.

Además, se impulsarán acciones y campañas para mejorar la imagen de la feria y poner en valor los productos.

2023an landutako Berdintasun Planaren onarpenak, datozen urteetan aurrera eramateko ibilbide-orria zehaztuko du.

La aprobación del Plan de Igualdad elaborado en 2023 marcará la hoja de ruta para llevarlo a cabo en los próximos años.

Espazio publiko atsegina eta kalitatezko zerbitzuak

Espacio público agradable y servicios de calidad

Udalerriko espazio publikoa hobetu eta udal eraikinen eskaintzan aurrera pauso bat emateko, udaberrian San Inazio - Esteban Lasa kaleko eraberritze lanak hasiko dira, ingurua sozialki eta komertzialki biziberrituko dutenak. Irisgarritasuna, bide segurtasuna eta gune atseginago bat bilakatzea dira proiektuaren ardatzak.

Para mejorar el espacio público del municipio y dar un paso adelante en la oferta de edificios municipales, en primavera comenzarán las obras de reforma de la calle San Inazio - Esteban Lasa, que revitalizarán social y comercialmente la zona. Accesibilidad, seguridad vial y convertirse en un espacio más acogedor son los ejes del proyecto.

Bestetik, Arana kalean, Bonberia kulturgune berria egokituko da. Herriko kultur eskaintza eta sorkuntza sustatzeko topagune izateaz gain, Bonberia aktibatzeak, Arana kalea biziberritzea ekarriko du.

Por otro, en la calle Arana, se habilitará el nuevo centro cultural Bonberia. Además de ser punto de encuentro para fomentar la oferta y creación cultural de la localidad, la activación de Bonberia supondrá la revitalización de la calle Arana.

Se realizará un estudio de la Biblioteca Municipal con el objetivo de dar respuesta a las

Udal Bibliotekaren azterketa bat egingo da, egungo beharrei erantzuteko helburuarekin, espazioaren eta zerbitzuen analisi bat eginaz.	necesidades actuales, realizando un análisis espacial y de servicios.
Dolarea parkean komun publikoa jarriko dugu, parkeak egun duen erabileraren ondorioz, erabiltzaileen beharrak asetzeko asmoz.	Se habilitará un aseo público en el parque de Dolarea, como consecuencia del uso actual del parque, con el fin de satisfacer las necesidades de los usuarios.
Legealdi amaierarako Beasaingo kale argiteriaren %100 LED teknologiarara aldatzea dugu helburu, beti ere jasangarritasun ekonomiko eta ingurumeneko jasangarritasun parametroak aztertu ostean.	El objetivo para el final de la legislatura es cambiar el 100% del alumbrado viario de Beasain a tecnología LED, una vez analizados los parámetros de sostenibilidad económica y ambiental.
Gudugarretako industrialdea eta Salbatore arteko bidegorria argizatuko dira oinezko eta bizikleta erabiltzaileen erosotasun eta segurtasunerako.	Se iluminará el bidegorri entre el polígono industrial de Gudugarreta y Salbatore para comodidad y seguridad de peatones y usuarios de bicicletas.
Ingurumenaren zaintza eta mugikortasun jasangarria	Cuidado del medio ambiente y movilidad sostenible
Antzizar kiroldegian kontsumitzen den ura berotzeko Fundiciones del Estanda enpresaren bero soberakina aprobetxatzeko proiektua izango da ekimen aitzindarietako bat.	Una de las iniciativas pioneras será el proyecto de aprovechamiento del excedente de calor de la empresa Fundiciones del Estanda para calentar el agua que se consume en el polideportivo Antzizar.
Gainera, esku-hartze hau egiteko lanak baliatuz, Aldundiarekin lankidetzan Antzizarreko biribilgunea egikaritzeko da.	Además, aprovechando los trabajos para llevar a cabo esta intervención, en colaboración con la Diputación se ejecutará la rotonda del Antzizar.
Mugikortasun jasangarriari dagokionez, osasun etxea eta Olaberria lotuko dituen Oriako Bide Berdeak oinezko eta bizikletentzako lotura berri bat eskainiko die herritarrei.	En cuanto a la movilidad sostenible, la Vía Verde del Oria, que unirá el centro de salud con Olaberria, ofrecerá a la ciudadanía una nueva conexión peatonal y ciclista.
Mugikortasun azpiegiturak hobetzeko 120.000eko partida bat aurreikusi da, bizikletentzako aparkaleku gehiago jartzeko, besteak beste.	Para mejorar las infraestructuras de movilidad está prevista una partida de 120.000 para habilitar más aparcamientos para bicicletas, entre otras medidas.
Bizikleta alokairu-publiko zerbitzua ere martxan jarriko da, Beasaingo gunen nagusiak garraiobide honen bitartez egitea erraztuko duena.	También se pondrá en marcha el servicio de alquiler público de bicicletas, que facilitará la unión de las principales zonas de Beasain a través de este medio de transporte.
Udalbatzaren onespenerako, honako PROPOSAMENA aurkezten dugu:	Se somete a aprobación del Pleno la siguiente PROPUESTA:
<u>Lehenik.</u> - 2024 urterako Aurrekontuaren espediente onartzea, 21.796.075,50 eurotan	<u>Primero.</u> - Aprobar el expediente del Presupuesto municipal para el año 2024 cuyo estado de

estimaturako gastu eta sarreraren egoera-orriak dituen.

Bigarren.- 15 egun jendaurrean jartzea eta epe horretan erreklamaziorik aurkeztu ez bada behin betirako onartutzat emango da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek adierazi dira:

gastos e ingresos estimativos asciende a 21.796.075,50 €.

Segundo.- Someter a exposición pública por espacio de 15 días, transcurridos los cuales sin que se presenten reclamaciones, se tendrá por definitivamente aprobado. “

En el turno de intervenciones se exponen las siguientes opiniones:

Eva Alvarez Atanes (Euskal Sozialistak- Socialistas Vascos): “Este año, entre las propuestas que hemos formulado para el presupuesto de 2024, han sido las siguientes:

- Colocación de pictogramas para fomentar la autonomía de las personas con trastorno de espectro autista en diferentes pasos de cebra. No nos queda claro si se ha aceptado porque no lo hemos visto reflejado en el presupuesto.
- Elaborar una guía que recoja los servicios del Ayuntamiento y publicitar dónde se dispone esta información.
- Crear la casa de la mujer creando una partida para efectuar un estudio sobre cómo podría ser y de iniciar los primeros pasos para la creación de esta casa.
- Mejorar el mantenimiento de parques para perros instalando juegos.
- Mejorar el alumbrado e instalaciones en los barrios de Beasain.
- Colocación de un vestuario en el parque de agua de Dolarea.
- Elaborar un mapa de la red ciclista de Beasain.
- Creación de un museo de historia industrial (dentro del proyecto de rehabilitación de Olaran), para poner en valor el patrimonio de los edificios retirados en la entrada a CAF en el barrio de la portería.
- Instalación de baños públicos en el barrio de Igartza. Daría servicio al barrio y al parque de Ixabel Olano (antes lo propusimos y no se reflejó en el proyecto).
- Para la mejora de sostenibilidad y acceso a los municipios de Ordizia y Lazkao, crear una red de alquiler de bicicletas.
- Mejora de la accesibilidad en las calles Mateo Muxika y Arantzazu (desde el equipo de gobierno nos ha instado para que nos reunamos con los técnicos y ver qué proyecto puede ser viable.

Tras el análisis del presupuesto decir que nos encontramos con partidas de gasto que no se ajustan a la realidad. Por ejemplo, el proyecto de la bombería o el del distric-heating. En ambos casos la partida es de 50.000 €. Viene siendo una crítica histórica. El prever partidas no acordes a la realidad restan credibilidad al presupuesto. Últimamente se presenta así y luego en la liquidación del presupuesto se demuestra que el gasto no ha sido el previsto, sino más elevado.

En cuanto al proyecto de renovación de la bombería, tal y como hemos visto publicado en los medios, es un proyecto no sólo de la rehabilitación del edificio, sino que conlleva la instalación de una pasarela desde la calle Arana hasta la plaza Gipuzkoa. Desde un principio nos mostramos en desacuerdo con esta propuesta. Nos parece que existiendo dos puentes en menos de 400 metros no es necesaria la pasarela. En el Plan General se justifica para dar mayor seguridad y visibilidad a la calle Arana, pero algunos vecinos que se acercaron hasta nosotros están en contra de este proyecto, y por ello seguimos en desacuerdo con él.

Con el gasto político que refleja el presupuesto, también estamos en contra. Lo hemos dicho en el punto anterior y también al inicio de la legislatura. Un gasto político que se aprobó para salvaguardar la dignidad política. Nosotros creemos que lo primero que hay que salvaguardar es la dignidad de la ciudadanía.

Pusimos encima de la mesa una subida en los gastos sociales porque la coyuntura económica actual lo demanda. En otras administraciones también se está haciendo un esfuerzo en ayudar a la ciudadanía a paliar esa circunstancia.

En lo que al proyecto de la casa de la mujer se refiere, no sólo es una iniciativa nuestra. Se necesita y las asociaciones lo han pedido y se ha recogido en el Consejo de Igualdad. Sin embargo, en el presupuesto no se recoge ni siquiera el estudio. Proponíamos aprovechar los edificios públicos que tenemos como es Aranealde (en el presupuesto se prevé una partida para su pintado). Entendemos que es viable porque ni la accesibilidad a él ni la visibilidad constituye un problema.

Teniendo en cuenta lo dicho, nuestra postura será la de la abstención porque aunque se recogen propuestas con las que estamos de acuerdo (baño en el parque Dolarea, mejora del alumbrado en los barrios, servicio de alquiler de bicis y proyecto de mapa circuito-ciclable peatonal y ciclista)."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Eskatutako pictogramak esan zitzaizuen mugikortasun planean txertatuta daudela. Mugikortasun partida bat dugu eta hortik elikatuko da. Gure asmoa eta horrela esan zitzaizuen aurrekontuaren inguruan egin zen bileran, lehenestuko direla ikastetxetako ibilbideak eta gero beharbada, herri guztira luzatuko genuke pictogramak pintatzea zebra-bideetan. Txakur parkeetan jokoak jartzea. Bere garaian esan genizuen kontsulta egin genuela eta ikusten da ditugun aisiarako gune-bide eta txakur-parkeetan jokoak jartzea erreklamo bat izan daitekeela gatazkak sortzeko. Esan duzu hainbat proiektuekin bat egiten duzuela. Horren inguruan esan, aurrekontuan batzuk jadanik txertatuta zeudela, hala nola, alokairu bizikleta sarea. Emakumearen etxearen inguruan esan, berdintasun plana oraindik ere onartzeke dagoela eta hor aurreikusten dela ekintza plan gisa 2024a hausnarketarako hartzea eta 2025-2026an egikaritu. Beraz, horretarako ez da partidarik behar. Gure artean landu eta ahal bada adostasunetara iritsi. Aipatu duzu Aranealde baina oraindik goiz da esateko. Izan daiteke Asmubek duen lokalari ere horrelako entitatea ematea... aukera ezberdinak daude. 2024a hartu dezakegu hori lantzeko.

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Se os informó que los pictogramas solicitados están incluidos en el plan de movilidad. Tenemos una partida de movilidad y se financiará de ahí. Nuestra intención, y así se os dijo en la reunión que se celebró en torno al presupuesto, es que se prioricen los itinerarios de los colegios y luego quizás extenderíamos el pintado de pictogramas en los pasos de cebra a todo el pueblo. Instalación de juegos en parques caninos. En su día os dijimos que hicimos la consulta y se ve que poner juegos en los caminos de ocio y parques caninos que tenemos puede ser un reclamo para generar conflictos. Has dicho que estáis de acuerdo con varios proyectos. A este respecto, decir que algunos de ellos, como la red de alquiler de bicicletas ya estaban incluidos en el presupuesto. En relación con la casa de la mujer, señalar que el plan de igualdad está aún pendiente de aprobación y que en el plan de acción se recoge su ejecución en 2025-2026. Así que para eso no hace falta partida. Analizarlo entre nosotros y llegar a consensos si es posible. Has mencionado a Aranealde pero aún es pronto para decirlo. Puede ser que al local que tiene Asmube también se le dé este tipo de entidad... hay diferentes posibilidades. Podemos tomar 2024 para trabajarlo.

Arantzazuko igogailuaren inguruan, esan duzuna. Guk oraindik hemen egindako lanketarekin ez dugu alternatiba posiblerik aurkitu. Guri hirigintzako teknikariek ez dute aukerarik ikusten eta igogailuen enpresa batekin ere kontsultak egin genituen. Baina, ateak zabalik daude teknikoaren eskutik. Bertaratu eta ea aukera posible bat ikusi daitekeen.

Respecto al ascensor de Arantzazu, lo que has dicho. Con el trabajo que nosotros hemos hecho todavía aquí no hemos encontrado una alternativa posible. Nuestros técnicos de urbanismo no ven posibilidades y también hicimos consultas con una empresa de ascensores. Pero, las puertas están abiertas de la mano de los técnicos. Acudir y ver si se puede ver una opción posible.

Gizarte larrialdietarako laguntzen gehikuntza. Horren esan zitzazuen iaz RGI legearen aldaketa egon dela eta RGI prestazioak igo egin direla. Aurreikusten da egun gizarte larrialdietarako laguntzak jasotzen dituzten hainbat prestazio RGItik jasoko dituztela. Hori horrela gure helburua izan da partida, bere horretan mantentzea eta datorren urtean RGI legearen berrikuntzaren aplikazioan ikusiko da zein izan den aldaketa.

Incremento de las ayudas de emergencia social. Se os informó que el año pasado ha habido una modificación de la ley RGI y que se han incrementado las prestaciones RGI. Se prevé que reciban de la RGI diversas prestaciones que actualmente reciben de las ayudas de emergencia social. Así pues, nuestro objetivo ha sido mantener intacta la partida y el año que viene se verá cuál ha sido el cambio en la aplicación de la reforma de la RGI.

Bonberia eta pasarela. Iritziak ezberdinak izan daitezke. Guk argi ikusten dugu bi zubien artean oinezkoen pasabidea egiteak Arana kalearen biziberritzea ekarriko duela. Pasabide naturala sortuko litzateke eta Gipuzkoa plazatik datozenak izango lukete egun dituzten bi aukeretatik gain oinezkoen pasabide hau eta Arana kaletik ibiltzeko aukera izango du. Guk garbi daukagu bonberia eraberritzeaz gain horrelako pasabidea egin behar dela. Horrek eskatzen du lehenik eta behin CAF inguruan egiten ari diren obrak bukatzea eta horrekin ikustea zein uholdegarritasun mantxak geratzen diren eta horren baitan oinezkoentzako pasarela proiektatzea.

Bombería y pasarela. Las opiniones pueden ser diferentes. Nosotros vemos claro que hacer un paso de peatones entre los dos puentes va a suponer la regeneración de la calle Arana. Se crearía un paso natural y los que vienen de la plaza de Gipuzkoa tendrían además de las dos opciones que tienen actualmente este paso peatonal y tendrá la posibilidad de circular por la calle Arana. Nosotros tenemos claro que además de reformar la bombería hay que hacer este tipo de pasarela. Esto requiere, en primer lugar, la finalización de las obras que se están llevando a cabo en la zona de CAF y con ello ver qué manchas de inundabilidad quedan y en consecuencia proyectar la pasarela peatonal.

Besterik gabe, zuen abstentzioa eskertu. Ikusten da zuek proposatutakoen artean, hainbat gu jadanik txertatuta geneuzkela aurrekontuan eta ezberdintasunak ezberdintasun, amankomunean ere proiektu batzuk aurrera eramateko bidea badugu."

Simplemente, agradeceremos vuestra abstención. Se observa que, de entre los propuestos por ustedes, ya habíamos incluido a varios en el presupuesto y a pesar de las diferencias, también tenemos en común la posibilidad de llevar a cabo algunos proyectos. "

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): "Hasiko gara aztertzen prozedura aurrekontu hau osatzeko. Egia da pasatako lau urteekin konparatuta zertxobait hobetu dela. Garai batean zenbakiak ere ez ziren azaltzen. Kontzeptuak bakarrik. Orain zenbakiak azaltzen dira, baina denbora aldetik, aurreikusten diren hainbat proiektu egin gabe geratzen direnekin eta proiektuei asignatzen zaien diru-partidekin, ez gaudela ados. Horiei gehituko genioke herritarren parte-hartze zuzenaren falta. Adibideak badaude herritarrei parte hartzeko aukera eman izanaren proiektuak. Administrazio guztien lana izan beharko litzateke herritarrei aukera ematea administrazioarekiko gertuago sentitzeko.

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): "Comenzaremos analizando el procedimiento para elaborar este presupuesto. Es cierto que ha mejorado ligeramente respecto a los cuatro años transcurridos. Hubo un tiempo en que ni siquiera se explicaban los números, sólo los conceptos. Ahora se explican los números, pero con el tiempo, con que varios de los proyectos que se prevén quedan pendientes y con las partidas que se asignan a los proyectos, no estamos de acuerdo. A ellos añadir la falta de participación ciudadana directa. Hay ejemplos de proyectos que han permitido a la ciudadanía participar. Debería ser labor de todas las administraciones permitir a los ciudadanos sentirse más cerca de la administración.

Edukiaren aldetik gauza batzuetan ados gaude eta beste batzuetan, ez. Aurrekontua aurkeztu

Hay cosas del contenido en las que estamos de acuerdo y otras en las que no. Leeré la primera

zeneko lehenengo esaldia irakurriko dut: *parekidetasuna eta ongizatea, iparra hartuta osatutako aurrekontu-proiektua*. Baliteke, baina atentzioa deitzen digu parekidetasuna eta ongizate sailen diru-murrizketa planteatzen dela 2023 urteekiko. Horrek esan nahi dudana da guretzat estrukturalak diren bi gai, ongizatea eta etxebizitza-eskubide gaietan apustu sendoa egiteko aukera galdu dela. Dirulaguntzak ematen dira etxebizitza alokatzeko, baina alokatzeko etxebizitzarik ez dago. Nik uste dut hori denok nabaritzen dugula. Hor badugu apustu seguru bat egiteko aukera. Askotan proposatu dugu eta aurten ere laguntzak bakarrik proposatzen dira eta ez, sortze-neurriak. Ongizaten ere 29.000 €ko murrizketa dago. Esan duzu RGIren legea aldatu dela baina badakigu GLLetan arazotxo batzuk egon direla diru partidak agortu direlako. Edukia nagusiaren ikuspuntutik bi irakurketa horiek egiten ditugu beste kontzeptu batzuetan sartu gabe.

Hori esanda, gustatuko litzaiguke azpimarratzea guk, aurrekontu hauek hobetzeko, egin ditugun ekarpenak eta eman zaien erantzuna edo ikusi dugun jarrera:

Beste ekitaldi batzuetan egindakoen artean:

- Landa garapenerako lursailen erosketa (basogintza eredurako eta baita nekazaritza ustiapenerako), egitea. Iaz planteatu zen eta ez zen exekutatu eta aurten ez zegoen sartuta eta guk horren aldeko apustua egiten dugu. Esan zaigu martxoa, apirila aldera inorporatuko dela partida hau.
- C1 maila-arte euskara ikasteko doakotasuna. Kosta zaigu, baina onartu da. Eusko Jaurlaritzak lege baten ondorioz onartuko duela esan zaigu. Jarraipena egingo dugu.
- Eskaera historikoa: gazteleku, ludoteka. Badirudi gaztelekua irekitzeko prest zaudetela. Pozten gara. Dena dela azpiegitura irekitzea gauza bat da, baina edukiaz bete behar da.

2024ko ekitaldietarako ekarpen berrien artean:

frase de la presentación del presupuesto: un proyecto de presupuesto que tiene como objetivos la paridad y el bienestar,. Puede que sí, pero nos llama la atención que en el departamento de bienestar y paridad se plantea una reducción económica con respecto al 2023. Lo que quiero decir es que se ha perdido la oportunidad de apostar fuerte en dos temas que para nosotros son estructurales, el bienestar y el derecho a la vivienda. Se subvenciona el alquiler de vivienda pero no existe vivienda en alquiler. Yo creo que eso lo notamos todos. Ahí tenemos la posibilidad de hacer una apuesta segura. Lo hemos propuesto muchas veces y este año también se proponen solo ayudas y no medidas. En bienestar también hay una reducción de 29.000 €. Dices que se ha modificado la ley de la RGI pero sabemos que en las AES ha habido algunos problemas porque se han agotado las partidas. Desde el punto de vista del contenido principal hacemos estas dos lecturas sin entrar en otros conceptos.

Dicho esto, nos gustaría destacar las aportaciones que hemos realizado para mejorar estos presupuestos y la respuesta que se les ha dado o la actitud que hemos observado:

Entre las realizadas en otros ejercicios:

- Realizar la compra de terrenos de desarrollo rural (para el modelo forestal y también para la explotación agraria). Se planteó el año pasado y no se ejecutó y este año no estaba incluido y nosotros apostamos por ello. Se nos ha dicho que esta partida se incorporará hacia marzo o abril.
- Gratuidad para aprender euskera hasta el nivel C1. Nos ha costado, pero se ha aceptado. Se nos ha dicho que se va a aprobar como consecuencia de una ley del Gobierno Vasco. Haremos un seguimiento.
- Demanda histórica: gazteleku, ludoteka. Parece que estáis dispuestos a abrir el gazteleku. Nos alegramos. Sea como sea, abrir la infraestructura es una cosa, pero hay que llenarla de contenido.

Entre las nuevas aportaciones para el ejercicio 2024:

- Completar la red de ascensores dignos

- Igogailu duin sarea osatzea (Arangoitiko igogailuaren konponketa, Bista Alai, kale Nagusia-Esteban Lasarekin elkartzeko proiektua).
- Bizikletentzat aparkaleku estaliak planteatzen ditugu, baina ez dugu partida zehatz bat ikusi nahiz eta mugikortasuneko igo.
- Kulturgintza, elkartegintza. Esan da dirulaguntzak ematen zaizkiela eta eskertzekoa da elkarte hauek herrian egiten duten lana, baina badakigu askotan zein arazo izaten dituzten laguntza horiek zuzitzeko. Gure ustetan kultur-mahaia sortzea interesgarria izango litzateke bai, elkarteak duten errelebo arazoari erantzuna emateko eta baita ere laguntzeko dirulaguntzak kudeatzen. Badakigu ez dela erraza hori guztia kuantifikatzea eta horregatik konpromiso antzeko bat aurkeztu zitzagun, baina oraingoz ikusteke dagoena.
- Liburutegia berritzea. Aurrekontuetan jasota dago mobleria berritzeko partida (50.000 €). Gure ustetan ez da bakarrik azpiegitura berritzea baizik eta uste dugu birpentsatu egin behar dela liburutegia zertarako eta nolakoa nahi dugun. Adibideak badaude egungo egoerara egokitutakoak. Uste du gai honetan nolabaiteko sintonia dagoela.
- Etxebizitza hutsen azterketa sartuta dago baina premiazkoa izan beharko luke, honek beste neurri batzuk hartzea ahalbideratuko duelako.
- Institutuko irisgarritasuna hobetzea, eskailerak egoera tamalgarrian daudelako. Hau uste dut beste norbaitek ere eskatu duela.
- Emakumeen etxearen inguruan, uste dugu udalaren jarrera zein izan behar den aztertu egin behar dela. Beasainen badaude erakunde feministak, berdintasun kontseilua eta udalari tokatzen zaio lagun izatea eta udalaren errekurtsioak bideratzea horretarako. Dena dela emakumeen etxea izango litzateke baliabide bat emakumearen arloan lortu nahi diren helburuak lortzeko.

(reparación del ascensor de Arangoiti, Bista Alai, Proyecto de unir Kale Nagusia con Esteban Lasa).

- Planteamos aparcamientos cubiertos para bicicletas, pero no hemos visto una partida concreta aunque se aumente el de movilidad.
- La actividad cultural, el asociacionismo. Se dice que se les conceden subvenciones y es de agradecer el trabajo que realizan estas asociaciones en el pueblo, pero sabemos los problemas que muchas veces tienen para justificar estas ayudas. Creemos que sería interesante crear una mesa de cultura para dar respuesta al problema de relevo que tiene el asociacionismo y también para ayudar a gestionar las subvenciones. Sabemos que no es fácil cuantificar todo esto y por eso se nos presentó una especie de compromiso, pero que de momento está por ver.
- Renovación de la biblioteca. La partida presupuestaria para la renovación del mobiliario es de 50.000 €. Creemos que no se trata sólo de renovar la infraestructura, sino que creemos que hay que repensar para qué y cómo queremos la biblioteca. Hay ejemplos adaptados a la situación actual. Creemos que en este tema hay cierta sintonía.
- El estudio de las viviendas vacías está incluido pero debería ser urgente porque esto permitirá adoptar otras medidas.
- Mejorar la accesibilidad al instituto por el lamentable estado de las escaleras. Creo que esto también lo ha pedido otra persona.
- En torno a la casa de las mujeres, creemos que hay que analizar cuál debe ser la postura del ayuntamiento. En Beasain existen organizaciones feministas, el consejo de igualdad y al ayuntamiento le toca prestar apoyo y canalizar los recursos municipales para ello. En cualquier caso, el hogar de las mujeres sería un recurso para conseguir los objetivos que se persiguen en el ámbito de la mujer.

Beste urte batzuetan baino gure proposamenarekiko harkorrageo bilatu zaituztegu, baina ez dira gure aurrekontuak. Gure jarrera, iaz bezala, ezezkia izango da.”

Os hemos visto más receptivos a nuestra propuesta que otros años, pero no son nuestros

presupuestos. Nuestra posición, como el año pasado, será contraria. "

Alkatea andreak (EAJ-PNV): "Noski, aurrekontuak gureak dira eta horrelakoetan zuen ekarpenak jaso eta proposamenak jasotzeko bidea eta saiakera egiten da. Diferentziak diferentzia, diru partiden kritika errepikatua da. Guk egitasmo bat aurrera eramateko aukera dugunean partida irekitzen dugu eta horren ahalbidetzen digu gure legegintzaldi planeko hainbat ekimen eta proiektu aurrera eramatea.

Edukiari dagokionez, parekidetasuna edo ongizate partida jaisteak ez du esan nahi egitasmo horiek gutxituko direnik, geroz eta gehiago zehar lerrotasuna lantzen delako. Gure udalean herritar saila anitza da eta ezin ditugu enkajonatu partidak sail bakoitzean. Askotan ongizateko partida batzuk gazterian egon daitezke edo beste azpiarloan batean.

Proposamenei dagokienean, C1 arte doakotasuna lantzeko ados. Gero tokatuko da horren dirulaguntza oinarriak lantzea. Gaztelekua, bai. Guk zabaldu genuen eta horrelakoetan bilakaera ikusten da. Hasieran zerbitzuak ondo funtzionatu zuen baina hainbat inguruabar egongo ziren. Gazte-lokalen fenomenoak ere sortu zen eta gaur egun badirudi jaitziz doala. Guk garai hartan zuhurtziaz hartutako erabakia izan zen gaztelekua ixtea. Hausnartu da, gazteria plan bat ere egin da eta orain gazte batzuen aisialdirako berriro ere zerbitzu hori martxan jarriko da eta espero dugu ondo joatea. Igogailu sarean azaldu zitzaizuen zergatik plazan guk ez dugu ikusten. Bista Alai aipatu duzu azterketa egiteko konpromisoa eta Arangotin etorkizuneko arrapala irisgarri hori egin arte, bertako erabiltzaileek Gurutze Gorriaren bidez konpontzeko asmoa. Bizikletentzako aparkaleku estaliarena ere esan zaizue mugikortasun partida bat dagoela. Institutuko eskailerak, ba guretzat ere penagarria, baina ikusi nahiko nuke zuen aurrekontuak gure aurrekontuetatik zein ezberdintasunak izango lituzketen. Esaten dituzue ez direla zuen aurrekontuak baina gero

